ELGOIBAR - 707. zenb. - XVII urtea - 2009-08-23

B
BARREN

# Topa!




Jai zoriontsuak!
EAJ
PNV

# MERKATU PLAZA

## *Uste duzuna baino gehiago!*



**Arantxa** eta **Marian**
FRUTADENDA



**MARI** HARATEGIA



**TXILARRE** BARAZKIAK
Elikagai ekologikoak



**M. Angeles**
FRUTADENDA



**Amaia** FRUTADENDA



**ZABALA** FRUTADENDA



**PAGOA** LORADENDA



**Zabala**
URDAITEGIA eta ARDANDEGIA

*San Bartolome jai zoriontsuak!*


Ondo pasau San Bartolomiak
Muruamendiaraz
ELGOIBAR
Jaixak Ondo pasau"
Jaiak nahi badituzue gozo-gozo igaro Muruamendiarazen aukera ugari dago
MURUAMENDIARAZ gozotegia · San Bartolome, 34-35 · Tel. 943 740 345


NEKAZARITZA TRADIZIONALA ETA BABESTUA
ZELETA
BARAZKIAK
Ekoizpen prozesuan energia berriztagarriak erabiltzen ditugu
EUSKAL BASERRI
ZELETA BARAZKIAK
• Landareen produkzioa
• Laborantza kontrola
• Eskuz eginiko aukeraketa
• Banaketa
• Bertako produktuetan erantzunik gertukoena
JAIAK ONDO PASA!
ZELETA BASERRIA • San Migel auzoa / ELGOIBAR • Tfnoa. 609 35 76 19 • www.zeletabaserria.com

# Parrandazale hori, agur t'erdi!

Zailla egitten da, jaixak hasteko hillabete falta danian, testu hau idaztia, baiña saiatuko gera. Batzuk oporretatik bueltan, beste batzuk hartu berri, asko eta asko EREari besarkatuta, edo espaiñiar Erreinuko enpresa haundixeneko plantillan sartuta (INEMen). Eta iraillian gauzak ez debe hobera egitteko itxurarik, baiña jaxietaz ari giñan.

Iritsi dirala eta, aurten ere zortzi egun dittugu aurretik. Egixa esan, egun askotxo ete diran pentsatzen dot, eta ez da edadian kontua, azken baten egun asko bai, baiña zetako? Oso gutxi dira (gera), egun denak aprobetxatu nahi izaten dittugunak (batzutan indarrak kale egin arren), bai egunez, bai gauez. Beraz, kaliak hartu bihar dittugu, jai herrikoiak herrixak egitten dittualako, eta horren adibide (ez dakitt beste nunbaitten holan ete dan) hiru txupinazo izango dittugula berriro ere: ofiziala, tradizionala eta Gune Askatukua.

Aurten be, Udalak sortutako egitarauari gehigarri moduan, Gune Askatuan (gaiñera inguru berrittuan) ekintzak asko izango dira: kontzertuak, herri-bazkariak, hirugarren urtez euskerazko karaokia (gaur bertan)..., eta aurten berriro ere Gaztetxian ordu txikittako sesiuak egongo dira: 24, 29 eta 30eko goizak.

Azkenik, zenbaitt gomendio: kontuz zer sartzen dugun gorputzian, kantidadia eta kalidadia kontutan eduki; jaixetan aritzen diran artistei begirunia –ez bajatzu gustatzen, badakizu, ospa!–; ligoteo jatorra, akosatzia ez da ligatzia, norbere sexualidadiaz gozatu iñungo mugarik gabe, eta jarrera desegokixak ikusi edo jasan ezkero, erantzun –salaketa telefono bat ere badago, 644 298 715–.

Bestalde, ikusitta zelan hasi diran hainbat herrittako jaixak, aukera ugari dago. Kaskogorri Konpartsa Armatuak geurian ere agertzia, esaterako, lagunen argazkixak zein aldarrikapen mezuak kentzeko asmoz. Baina ille urdiñen moduan, bat kenduta, gehixago agertzen dira.

Delirium Tremensek kantatzen zuen moduan: ondo pasa! Eta asko atrapa! Dantzan egindakua dantzan eginda daguala!

Nestor Fuente



*"Nire txanda" atalean idatzi nahi baduzu, jarri zaitez gurekin harremanetan: 943 74 41 12 edo barren@elgoibarkoizarra.com*

**"Kaliak hartu bihar dittugu, jai herrikoiak herrixak egitten dittualako. Horren adibide, hiru txupinazo izango dittugu berriro ere"**


SANBARTOLOMEETAKO ERRETRATUAK ETA BIDEOAK MEDIATEKAN!

IRAILAREN 1ETIK AURRERA



Egin klik eta ikusiko duzu

www.elgoiBARREN.net

ELGOIBARKO IZARRA KULTUR ELKARTEA

# SOKARI TIRAKA



**Elgoibarko sokadantzaren 75. urteurrena ospatuko dute bihar, San Bartolome Egunean. Haritz euskal dantzari taldeak urteak daramatza sokari helduta dantza plazaratzen. Baina noiz eta nola sortu zen sokadantza Elgoibarren? *Elgoibar dantzan* liburuan agertzen da galdera horren erantzuna. Hona hemen historiaren zatitxo bat.**

**Edurne Burgaña**

Zehatz-mehatz jakitea zaila bada ere, agirietako datuen arabera, Elgoibarko sokadantzak 75 urte betetzen ditu aurten. Izenik gabeko ehunka dantzarik osatzen duten soka luze horrek eutsi dio gaur arte dantza egiteko ohiturari Elgoibarren, eta ohitura horrek dantza berezi bat jarraitzen du erakusten.

Oinarrizko egitura berari eutsiz eta batetik bestera hamaika aldaera erakutsiz, mende askotan, domeketan eta jai egunetan dantzatu izan dute. Hainbat izen eduki ditu: esku-dantza, gizon-dantza, karrika-dantza, aurreskua... Dantza gidatzen duen dantzariaren izena da, azkenaldian erabiliena: aurreskua. Hala ere, gaur egun, aurreskua dantzari bakarrarekin irudikatzen da lehenago, dantzariz osatutako sokarekin baino.

URKIOLA

Jaiak zuekin ospatzeko prest!

San Frantzisko, 8 • Tel.: 943 742 073

Elgoibarren sokadantzari buruzko datu zaharrenak Pello Arrietak bildu ditu, eta Sallobente auzoan XIX. mendearen azken urteetan egindako sokadantzari buruzkoak dira. Resurreccion Maria Azkuek XX. mendearen hasieran bildutako datua da Elgoibarren Gabon Zahar arratsaldean aurreskuak egiten zituztela plazan.

Errosario kalean egin zen Batzokiaren inauguraziorako, ezpata dantzari taldea prestatu zuten Romualdo Andonegiren eta Pujanaren artean, eta 1932ko Sanbartolomeetan sokadantza aurkeztu zuten. Txiki Egunean plazaratu ziren, eta Romualdo Andonegiren zuzendaritzapean Arturo Zubiaurrek eta Antonio Azpiazuk dantzatu zuten bakarlari.

## Elizaren inguruko elkarteak

36ko Gerrak eragindako hutsunearen ondoren lehenengo urratsak zailak izan ziren. Francoren errejimenaren lehenengo urteak, arau zorrotz eta askatasun gutxikoak izan ziren. Giro horretan, elizaren inguruko elkarteek zuten kultura-adierazpenak sustatzeko zirrikitu bakarrenetakoa.

Jose Mari Agirrebaltzategi apaizak gidatuta osatu zen dantzarako taldea Elgoibarren, eta sanbartolomeetan sokadantza plazaratu zuten berriz. Sokadantza eta dantza solteko txapelketak ziren dantza erakustaldi nagusiak San Bartolome Jaietan.

## Egun aldaketa

1950eko hamarkadaren azken urteetan Baltasar pilotazale elkarteak hartu zuen aurreskua antolatzeko ardura. San Bartolomeetako sokadantzaz gain auzoetako jaietan ere dantzatzen zuten aurreskua: Ermuaran-Sallobenten, Azkue-San Roken eta Aiastia-San Migelen. Horietan, auzotarrek osatzen zituzten sokak.

Sokadantza antolatzeko erreleboa Ongarri kultur elkarteak hartu zuen 1961ean. Hala ere, Baltasar elkarteak dantzarekin estu-estu lotuta jarraitu zuen. San Bartolomeetako sokadantzako dantzariei hamaiketakoa eskaintzen zieten Baltasarreko kideek. Elkartetik, Errosario kaletik, Plazaren atarian, irteten ziren dantzariak plazara. Ohitura horri gaur egunera arte eutsi dio Baltasar elkarteak, baina orain dantzariak plazara udaletxetik irteten dira, eta dantza saioa amaitutakoan, azken kalejirarekin egiten dute Baltasarrerako bidea.

1964an, Txiki Egunean egin beharrean, San Bartolome Egunean bertan, kaleratu zuen Ongarri elkarteak, abuztuaren 24an.

Ongarri elkarteari Elorra dantza taldeak hartu zion erreleboa. Ixidor Solupek zuzentzen zuen taldea izan zen dantzari helduz osatu zen lehen dantza talde iraunkorra Elgoibarren. 1965ean Ixidor Solupek plazaratu zuen soka, eta handik aurrera Elorrak hartu zuen bere gain San Bartolome Eguneko sokadantzaren ardura.

## Haritz dantzari taldea

1972an egin zuen Elorra dantza taldeak azken aldiz sokadantza. Elorra desagertzean, dantzari nagusiz osatutako dantza talderik gabe geratu zen Elgoibar. San Bartolome Jaietako aurreskua bertan behera gelditzeko arriskua sortu zen orduan.

Aurreskua galduko zen beldurrez, sanbartolomeetarako sokadantza ateratzeko taldetxo bat prestatzen hasi zen. Elorrako dantzari izandako batzuekin eta apropos egun horretarako prestatutako beste batzuekin konpondu zen taldea, baina oinarrizko zutabea Elgoibarko Izarrako umeei dantzak erakusten ari zirenek osatu zuten. Ion Arrietak sustatu zuen talde hori. Ongarrin dantzari eta Elorran txistulari ibilitakoa zen Arrieta, eta Elgoibarko Izarrako dantza eskolara lotuta jarraitzen zuen.

1973ko abuztuaren 24an, San Bartolome egunez plazaratu zen Ion Arrietak eta Lourdes Odriak gidatzen zuten talde berria. Modu horretan, San Bartolome Eguneko sokadantza plazaratu ahal izateko eta Elgoibarko Izarrako dantza eskolan egiten ziharduten lana sendotzeko sortu zen Haritz dantzari taldea.









*Ondo pasa San Bartolome jaiak!*







TOLETXE taberna

PEDRO MUGURUZA 8, BEHEA • ELGOIBAR • TEL.: 943 74 10 12


Zerbitzu iraunkorra: 943 74 13 27
EHORZKETA
ETXEBERRIA, S.L.
BEILATOKIA
Santa Klara, 16 behea • ELGOIBAR
Tel: 943 741 656 / 943 740 117
Mugikorra: 635 75 62 95
E-posta: tanaetxe@terra.es


Luis F. Beristain
korporazioa
xey
FORMA
banatzaile ofizila
Ondo pasa jaiak!
ETXEKIT
12 urteko bermea
Arrillaga z/g - Elgoibar
Tel. 943 74 43 47


PNEUMAX
PNEUMAX, S.A.
AUTOMATIZAZIO
NEUMATIKORAKO
OSAGAIAK
Olaso, 15, Pab. 52-53-54 - 20870 ELGOIBAR
Teléfono: 943 74 41 44 - 943 74 41 74
Telefax: 943 74 40 76
E-Mail: pneumax@pneumax.es
Web: www.pneumax.es
aiftop
ECOPLUS

# Pilar ikastetxeko ordezkariek botako dute txupin ofiziala

## Datorren ikasturte amaieran itxiko dute eskola, 2010ean

Pilar ikastetxeak azken ikasturtea egingo du aurten. 2010 urtean itxiko dute hainbeste urtean Elgoibarko umeak hezi dituen eskola. Ikasturte oso bat du aurretik ikastetxeak, baina, ateak itxi baino lehen, lantxo bat egin behar du San Bartolome Jaietan. Izan ere, ikastetxeko ordezkariek botako dute txupina.

Jaietako txupina pizteko ardura bi pertsonek hartuko dute: gurasoen batzordeko presidentea den Manu Condek, eta Pilar ikastetxeko zuzendaria den Nekane Aranburuk. "Urduri samar nago gauza berria delako niretzat. Ikastetxeak urte mordoa eman ditu martxan, eta lan horren errekonozimendua izango da txupina botatzea. Ikastetxearen aroa amaitu da, eta orain beste mezu bat zabaldu behar da: zaharrentzako zentro bilakatuko da eskola", azaldu du Condek.

### Zazpi urteko erronka

Azken ikasturtea 2010 urteko abuztuaren 31n amaituko da, eta orduan hasiko dira lanak. "Pena ematen digu eskolako ateak ixteak. Duela zazpi urte hartu genuen eskolako ardura, fraideek utzi zutenean, eta gure helburua ahalik eta jende gehienak ikasketak Pilarren bertan amaitzea izan da: duela zazpi urte matrikulatuta zeuden ikasleek, bertan bukatzea zikloa. Hala ere guztiek ezin izan dituzte hemen amaitu ikasketak, eta beste ikastetxe batzuetara joan beharko dira", gaineratu du gurasoen batzordeko presidenteak.

Orain arte umeentzako eskola izan denak beste itxura bat hartuko du aurrerantzean. Zaharrentzako zentro bihurtuko da: "Herrian beharrizan handia dago, eta eskola dagoen tokian nagusientzako tokia egitea garrantzitsuena zela pentsatu genuen. Gainera, ikastetxea Elgoibarkoa da, eta elgoibartarrentzat izatea nahi genuela argi geneukan. Elgoibarko herriarentzat opari antzekoa izatea nahi dugu, eta Elgoibarren bertan geratzea", bukatu du Condek.



*Iaz Mausitxa baserriko Rosa Mari Salegik bota zuen.*

Barren

BARRENek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea

Nafarroa enparantza, 2 • 20870 ELGOIBAR
☎ 943 74 41 12
Faxa: ☎ 943 74 37 04
E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com
Publizitatea: ☎ 943 74 37 04
E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com

Argitaratzailea: ELGOIBARKO IZARRA KULTUR ELKARTEA

ZUZENDARIA Ainhoa Andonegi KAZETARIAK Asier Orbea, Oier Narbaiza, Edurne Burgaña PUBLIZITATEA Leire Rubio, Eneritz Lazkano MAKETATZAILEA Zaloa Arnaiz MAKETAREN DISEINUA Jaione Unanue KOLABORATZAILEAK Oihana Tarragual, Ibai Portu, Ane Odria, Maialen Olazabal, Andres Alberdi, Anjel Ugarteburu, Abel Irizar, Alberto Agirreazaldegi, Sugar Etxaniz, Arkaitz Irureta, Zuhaitz Gurrutxaga, Unai Arrieta, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Eva Garcia, Miriam Garcia, Jesus Mari Makazaga, Juanito Gorostiza. INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.750 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855





Maialen Olazabal

Kaixo, Ane: zer moduz oporretan? Lotarako astirik ba al duzu? Ez dakit jakingo duzun, baina gure bizitzaren herena lotan pasatzen dugu. Batzuk pentsatuko dute denbora galtze bat dela. Baina derrigorrezkoa da heren hori lotan pasatzea, beste bi herenak bizi eta gozatzeko.

Jaiotzen garenean, egunaren zati handiena lotan pasatzen dugu, goseak esnatzen gaituen arte. Esna egoteak, garai honetan, ia helburu bakarra du: jatea. Urteak aurrera joan ahala, lo-orduen beharra murriztuz doa. Aitona-amonek lauzpabost ordurekin eta egunean zeharreko lo-kuluxkekin nahikoa dute.

Egunak hogeita lau ordu dauzka, eta ez du denerako ematen. Beraz, askotan loari orduak lapurtzen dizkiogu. Lapurturiko ordu horiek berreskuratzerik ez dago, galdutakoa galduta dago. Eta gero horrek ondorioak izango ditu.

## “Sekula lo hartu al duzu hartu behar ez zenukeen egoera batean?”

Nola jakin lo nahikoa egin dugun ala ez? Askotan pentsatzen dugu aspertuta egoteak, iluntasunean isil-isilik egoteak, logura ematen digula. Baina ez da horrela. Lo nahikoa eginez gero, nahiz eta aspertuta egon, ez genuke lorik hartuko. Aldiz, estimulu gabeko egoeretan lo hartuko bagenu, lo gutxi egin dugula adieraziko liguke.

Sekula lo hartu al duzu hartu behar ez zenukeen egoera batean?



Ane Odria

Jakingo bazenu, Maialen! Lo errazekoa naiz ni, eta askotan hartu izan dut lo, behar ez nituzkeen egoeretan, nahi baino gehiagotan, egia esan. Dena dela, hobe horiek aurrez aurre gaudela kontatzea…

Loaren garrantziaz jardun duzu, eta ezin aurka egin, arrazoi guztia daukazu. Bizi-bizi bizitzeko, ez dago loa bezalakorik. Automobilaren bateriak kargatzeko denbora eskatzen duen bezala, gure gorputzak ere denbora eskatzen du egunari aurre egiteko. Ez da komeni luzaroan deskantsu gabe ibiltzea, gorputzak ere badaki-eta planto egiten.

## “Ea, praka barrenez gain, kamisetak ere ardo kolorez zikintzen ditugun”

Hala ere, badira gorputzaren errutina apurtu eta gauari orduak lapurtzen dizkioten egunak ere, esaterako, ate joka dauzkagun sanbartolomeak. Asko izango dira (gu geu tarteko) parrandaren izenean gaueko loaldia goizaldera atzeratuko dutenak. Asko izango dira sokamuturrera gaupasa eginda eta etxera fraka barrenak zikin-zikin eginda iritsiko direnak. Zenbaitek zoratuta gaudela pentsatuko duen arren, badute xarma horrelako gauek, ezta Maialen?

Ea ba, praka barrenez gain, kamisetak ere ardo kolorez zikintzen ditugun aurten ere. Disfruta dezala bakoitzak bere modura, gauez edo egunez, edo gau eta egunez, gainean dauzkagun sanbartolomeez! Eta, ez ahaztu, jaietan ere izan dadila norbera bere buruaren jabe!

Elgoibarko Udala
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
DANOBAT
kutxa
GOITI
GRUPO DANOBAT


MADIGAN´S
Jai zoriontsuak!
IRISH PUB
• Gosariak
• Ogitartekoak
• Razioak
• Sandwichak
• Entsaladak
• Postreak
• Plater konbinatuak
GIRORIK ONENA!
Ordutegia: igandeetan, 10:00etatik aurrera
Astelehenetik larunbatera goizeko 7:00etatik aurrera
Bernardo Ezenarro, 2 behea
Tel.: 943 53 15 57


660 52 25 87
943 74 88 43
KU KOLOREA
ONDO PASA JAIAK!!
BARNE DISEINUA
PINTURA TEKNIKA DESBERDINAK
IZTUKUAK
FATXADAK ZAHARBERRITZEA
OHOLTZA FLOTAGARRIA
Urasandi 26, behea
20870 ELGOIBAR
Tel.: 660 522 587 - 943 748 843


Osasun eta Edergintza Zentrua!
DIETETIKA
OSTEOPATIA
AKUPUNTURA
ESTETIKA ZERBITZUAK,
GORPUTZ TRATAMENDUA
ETA LASER DEPILAZIOA
Ondo pasa jaiak!
aupa zen
EZAGUTU GAITZAZU
KONPROMISORIK GABE
Jausoro kalea,1 • Elgoibar • Telefonoa: 943 74 34 40


Alzolako Urak, bezero eta bizilagunei
San Juan jai zoriontsuak opa dizkizue.
Jai zoriontsuak
ALZOLA
www.alzola.com

# Hankak arinak... eta burua arinago!

**Kolore eta gustu guztiak ez dira berdinak. Horregatik, bakoitzak bere kolore eta gustuko musikaz gozatzeko aukera izango du San Bartolome Jaietan. Zazpi egunetan hamaika musika ekitaldi izango dira herriko hainbat gunetan. Soltean, taldean edo binaka, bakoitzak aukeratu dezala norekin dantza egin nahi duen.**

### Nueva Alaska orkestra

**Abuztuak 23, 23:00etan**
**Plaza Handian**

Gaur egungo taldeen abestiak ekarriko ditu Nueva Alaska orkestrak. Emakumeek eta gizonek osatzen dute taldea, eta hainbat abeslariren doinuekin alaituko dute gaua. Antolatzaileek esandakoaren arabera, oso erreferentzia onak dituzte, eta ikuskizun polita espero dute. Inguruko herrietan tankera honetako orkestak sarri izaten dira jaietan, eta Elgoibarren ere probatu nahi zuten.

### Su, argi eta musika ikuskizuna

**Abuztuak 23, 23:00etan**
**Plaza Handian**

Astondoa pirotekniak eskainita, ohiko suak ordezkatuko ditu ikuskizun honek. Musika eta piroteknia uztartuko dituzte. Iaz ere izan zen era honetako ikuskizuna, eta ikusleek izugarri gozatu zuten. San Bartolome eliza argiztatuko dute suzko erruborekin. Antolatzaileek aurreratu duten bezala, iazko arrakasta ikusita, aurten saio luzeagoa eskainiko dute.



### Aukeran dantza taldea

**Abuztuak 23, 23:30ean**
**Plaza Handian**

Aukeran Donostiako konpainia da, eta 1997. urtetik jatorri tradizionaleko dantza ikuskizunak egiten ditu. Arauetako asko desegituratzen dituzte, eta koreografiei dantza garaikideko kutsua ematen diete. Euskal dantza tradizionalaren aberastasuna ahal den gehiena erakusten dute, lengoaia freskoagoa eta gaurkotuagoa lortzeko asmoz. Lan berritzailea da.



### Pasai txarangarekin kalejira

**Abuztuak 25, 19:00etan**

Pasai txarangak 50 urte pasa daramatza herrietako jaiak alaitzen. Hamar lagunek osatzen dute taldea. Musika latinoa, pasodobleak eta rantxerak jotzeaz gain, talde ezagunen bertsioak ere egiten dituzte. Euren emanaldietan ohikoak dira, besteak beste, Rolling Stones edo Sting abeslarien doinuak.



### Egan

**Abuztuak 25, 22:30ean**
**Plaza Handian**

Xabier Saldias kantari azpeitiarra da Egan taldearen ahotsa. Ohiko erromeria giroari kutsu berezia eskainiko diote. Euren abestiekin batera, talde ezagunen euskarazko bertsioak egiten dituzte. Dantzariak ere badituzte taula gainean.








### Mugi Mugi taldearekin haurrentzako jaialdia

**Abuztuak 26, 19:30ean Plaza Handian**

Etxeko txikienek Mugi Mugi dantzaldiaz gozatzeko aukera izango dute. 70eko hamarkadako diskoteken giroa jarriko dute Plaza Handian. Erritmo dibertigarriak eta dantza pauso bitxiak ekarriko dituzte. Etxeko txikienentzako jolas zoro mordoxka batekin etorriko da taldea. Hala ere, haurrentzako baino, familia osoarentzako ikuskizuna da.

### Euskodance 2009

**Abuztuak 26, 22:30etan**
**Plaza Handian**

Dantza txapelketa batetik sortu da Euskodance 2009 ikuskizuna, telebista kate batek jarri zuena martxan, Euskal Herriko dantzari onenak aukeratzeko. Irabazleak herriz herri dabiltza dantzaldiak eskaintzen, eta aurtengo sanbartolomeetan Elgoibarren izango dira.

### Deabru beltzak taldearen ikuskizuna

**Abuztuak 27, 22:30etan**

Bande Deplacee lanarekin hiriko dantzan, suan eta erritmoan oinarrituriko lan berria aurkeztuko du Deabru Beltzak antzerki taldeak. Samurai gudarien antza duten pertsonaia bitxiek kalea hartu eta dantzan jarriko dute. Erritual garaikideek egunerokotasunaren keinuak, munduko erritmoak eta su primitiboa barneratzen dituzte.



### Zo Zongo fanfarrearekin kalejira

**Abuztuak 28, 19:00etan**

Hamaika musikari, hiru dantzari sentsual, doinu afrikarrak eta latinoak, kolorea, berotasuna eta bizitasuna. Osagai ezinhobeak jai giroa alaitzeko. Oiartzungo perkusio taldeak tinbal eta danbor doinuak ekarriko ditu Elgoibarrera. 2004an osatu zuten taldea zazpi lagunek, eta ordutik jairik jai ibiltzen dira kaleak alaituz.



### Kauta

**Abuztuak 28, 00:00etan**
**Plaza Handian**

Kauta taldea lau gaztek osatu zuten 2001ean, Andoainen. Lehen agerraldia Andoaingo gaztetxean egin zuten 2002ko martxoan, eta hortik aurrera kontzertu asko eman dituzte. Mikel Morenok (ahotsa eta gitarra), Adrian Elustondok (baxua) eta Gorka Mendizabalek (bateria) osatzen dute taldea. Gazte horien azken lana taularatuko dute Elgoibarren.

### Brahman

**Abuztuak 28, 23:00etan**
**Plaza Handian**

Brahman taldea japoniarra da. 1995ean sortu zuten Tokyon, eta berehala hasi ziren zuzeneko kontzertuak eskaintzen. Punk-rock estiloa lantzen dute batez ere, baina ijitoen doinuak ere sartzen dituzte tarteka euren emanaldietan. Budismotik dator taldearen izena, baina euren abestietan ez dute erlijioari buruz hitz egiten.



Unastegi
ETXE AGENTZIA
Junkal Agirregomoskorta
Bernardo Ezenarro, 2 • 20870 ELGOIBAR
Tel.: 943 743 492 - 625 708 042
e-posta: info@unastegi.com • www.unastegi.com

LA BODEGA
ERRETEGIA
Pedro Muguruza, 22
Tel.: 943 742 500
20870 ELGOIBAR [Gipuzkoa]
ERRETEGIA SAN BARTOLOME JAIETAN IREKITA EGONGO DELA GOGORARAZI NAHI DUGU.
FESTETAN, BETIKO EGUNEKO MENUARI, BOST MENU BEREZIEI ETA KARTARI EUTSIKO DIEGU.



## DJ GAUA

**Abuztuak 29, 22:30tan Madalako parkean**

DJ Markooz, DJ Rufoh eta DJ David MKrekin musika elektronikoaz gozatzeko aukera izango da goizaldera arte. Antolatzaileek lan handia egin dute Euskal Herriko, Espainiako eta Nazioarteko DJ onenak Elgoibarrera ekartzeko. Munduko hamar DJ onenen artean dago Markooz kataluniarra. Telebistako hainbat saio ezagunetan hartu izan du parte, eta publizitate iragarkiak egiteagatik ezaguna da. Bizkaia aldetik iritsiko da DJ Rufoh, eta elgoibartarren artean DJ MK, Krhis Rios. Ekitaldi horretan Napoka Iria taldeko Ander Mujikak ere parte hartuko du, soka eta aire instrumentuekin musika doinuak eginez. Udalak eta Madalako Jai Batzordeak elkarlanean antolatutako ekitaldia izango da.

## SEXPLOTION

**Abuztuak 28, 22:30ean Madalan**

2007ko udazkenean sortu zen Zumaiako Sexplotion musika taldea. Punk-Oi! eta Rock taldeetan aritutako gazte batzuk elkartu eta taldea osatu zuten. Inguruan berez dagoena jaso, eta punk-rock doinuez ahal bezain ondoen jantzita eskaintzen diete entzuleei. Mugitu eta astintzeko gogoa nahi izanez gero, Madalan jarri dute hitzordua.

## EGURRA ETA KITTO!

**Abuztuak 28, 22:30ean Madalan**

Egurra Eta Kitto! 2008ko uda hasieran sortu zen taldea da. Hilabete batzuetan lokalean kantuak sortzen aritu ondoren, abenduan eman zuten estreinako kontzertua. Gustuko dutena eta barrutik irteten zaien musika egiten dute. Doinu alaiak dira gehienak, parrandan dantza egiteko modukoak. Euskaraz abesten dute, eta, batez ere, eguneroko bizimoduan eragina duten gaiez. Hainbat hileko etenaldia egin ondoren, taula gainean dira berriro, egurra emateko prest.





## GOLDEN APPLE QUARTET

**Abuztuak 29, 23:00etan Plaza Handian**

Loiola Garmendiak, Eduardo Errondosorok, Manuel Romanok eta Kike Otxoak osatzen dute Golden Apple Quartet laukotea. Donostiarrak ez dira berriak Elgoibarren. Aurtengo jaietan *Los Golden en blanco y negro* emanaldia ekarriko dute. Argi eta soinuz beteriko emanaldia eskainiko dute, eta umorea izango da nagusi. Bertaratzen direnek barre eginez saio bikaina ikusteko aukera izango dute.






**IZAN ZIRELAKO GARA**
**GARELAKO IZANGO DIRA**
**JAIETAN ERE EUSKALDUN**

EUZKO
GAZTEDI

Elgoibarko **EGI**

ILS
Madalako etxe berrietan
Ondo pasa jaiak!
ILS
Industry Language Services
Informazioa, matrikula eta ordutegiak
943 744 040
www.ils.es
IMHn gaude
2009 - 2010 IKASTURTERAKO MATRIKULA IREKIA
HAURRAK ETA GAZTEAK INGELESA, FRANTSESA ETA ALEMANA
• HAURRAK 4 urtetik aurrera • GAZTEAK 12 urtetik aurrera
- Hizkuntzan erabat barneratzekoak, %100 ingelesez, frantsesez edo alemanez.
- Cambridge Azterketen prestakuntza: KET, PET eta FIRST CERTIFICATE.




ETXEBIZITZA BERRIENTZAT PROMOZIOA
TEXTIL HOGAR - LAGUNAK
Muelledun koltxoia, biskoa 2 aldeetan
eta biskozko burko leuna
CELTA somierra, tinkotasun erregulagarriarekin
3D Biskoaire koltxoi grisa
eta biskozko burko leuna



80/90 x 190......... 450€
120/135 x 190..... 670€
140/150 x 190......695€
MOYA somierra
Muelledzko koltxoia
eta biskozko burko leuna



80/90 x 190........ 255€
120/135 x 190.... 355€
140/150 x 190.... 410€
Zure gortinak prestatzen ditugu. Neurri guztietakoak ditugu. Aparte saltzen dira.
San Roke kalea, 20 - Tel.: 943 744 457 - ELGOIBAR - www.textillagunak.com
TEMPUR laxy OLDSAN MASH

# Sanbartolomeak 09

*Egitaraua*




Jose Manuel Esnalek irabazi du sanbartolomeetako kartel lehiaketa, eta 600 euroko saria eskuratu du. 19 lagunek hartu dute parte, eta oso maila altua izan da aurten. Elgoibartarrak bere ametsa egia bihurtu dela adierazi du. Umeen lehiaketan, 19 partaide izan dira, eta ondorengoak saritu dituzte: Markel Zabala, Lide Baz, Ane Almenara, Nora Isasti, Garazi Eizagirre eta Nerea Bastida.










## ABUZTUAK 22, *zapatua*

**19:30 ESKUBALOI PARTIDA**
Arrate eta Alcobendas taldeen arteko norgehiagoka, Sanlo EKTk antolatuta. Olaizaga kiroldegian.

**20:00 ARGAZKI ERAKUSKETA**
*Beste munduak, beste lekuak: Birmania eta Vietnam* argazki erakusketaren inaugurazioa. Angel Ispizuaren argazkiak. Kultur Etxean, irailaren 5era arte.

# San Bartolome Bezpera

## ABUZTUAK 23, *domeka*

**9:00 MEMORIAL ETXANIZ TXIRRINDULARI LASTERKETA**
Elite mailako amateurrentzat (19-23 urte). Gure Bide elkarteak antolatuta.
Irteera: Plaza Handian.
Helmuga: Santa Klaran, 12:00etan.



**13:00 TXUPINAZOA eta KANPAI JOTZEA**
Udaletxean Ikurriña jasoko dute jaiak hasteko.
Plaza Handian.
**Ondoren,** Mauxitxa txarangaren kalejira.

**16:00-20:00 HAURRENTZAKO PARKEA**
Plaza Handian
(Euria egiten badu, Sigman).

**16:30 SORPRESA**
Zaharren biltokian.



**17:00 ERRALDOI eta BURUHANDIEN KALEJIRA**
Herriko dultzaineroekin eta zezen-zikletekin batera.

**18:00 FUTBOL PARTIDUA MINTXETAN**
CD Elgoibar-Aretxabaleta
Antolatzailea: CD Elgoibar.

**19:00 KALEJIRA**
La Banda del Surdo taldearekin.

**19:00 KIROL ARGAZKIEN ERAKUSKETA**
Kultur Etxeko sotoan, hilaren 30era arte.

**20:00 SALBEA PARROKIAKO ABESBATZAK ABESTUTA**
Udal Txistulari Taldeak lagunduta, Udalbatza San Bartolome parrokiara joango da, alkate soinua joz.

**Jarraian,** kartel lehiaketako eta kirol argazki lehiaketako irabazleen sariak banatuko dituzte Udaleko pleno aretoan.

**23:00 KONTZERTUA**
Nueva Alaska Orkestrarekin, Plaza Handian.



¡DARRAGA KAFEAK
S. Frantzisko kalea, 17
ELGOIBAR
Ondo pasa jaiak!
Eguneroko errealdiak
Olaso industrialdea, 15 (55 E lokala)
Tel. 943 74 05 33 - Mugikorra: 675 70 87 39

Ondo pasa jaiak!
IRATXO
ROCK-KAFEA
San Frantzisko, 41 · Tel. 943 74 02 57

DEBAPE
inprimategia
komunikazio grafikoa
ONDO PASA JAIAK!
Liburuxka, publizitate, papergintza komertzial, kartel, ezkontza gonbidapen, etab..-en diseinu eta inprimaketa.
Inprimaketa digitala
SIGMA Industrialdea • Xixilion 2 - 2. solairua, 7. lokala
Tel.: 943 74 40 58 • Faxa: 943 74 41 78
20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)
debape@debape.com • www.debape.com

ESKURA EZAZU TXANKAKUA TXARTELA




TXANKAKUA txartelarekin erosterakoan, puntuak bildu eta opariak irabaziko dituzu.

katalogoa

→ Doakoa da.
→ Bankuz aldatu gabe.
→ Bildu puntuak erregaluekin trukatzeko.
→ Deskontuak urteko hilabete jakin batzuetan.

| | |
|---|---|
| AGIRRE SASTRERIA | 740341 |
| ARANBURU BITXIDENDA | 742535 |
| ARAURI LURRINDEGIA | 741789 |
| ARRIETA MODAK | 740849 |
| AZKUE ARGAZKI DENDA | 740848 |
| CASA ASTIGARRAGA | 743268 |
| DORI URDAITEGIA | 741192 |
| ECENARRO MERTZERIA | 742819 |
| FARMA APRAIZ | 743808 |
| FERPI MODAK | 740815 |
| G & M JANTZI-DENDA | 033476 |
| GARATE JANTZI-DENDA | 741129 |
| GARBIÑE ESTETIKA | 743132 |
| GOIARA DROGERIA | 741133 |
| IDARRAGA KAFEAK | 740833 |
| IKUS OPTIKA | 743734 |
| IRIONDO ALTZARIAK | 741234 |
| IRIONDO KIROLAK | 740956 |
| KALA LORADENDA | 744516 |
| KARKIZANO | 740549 |
| LANBROA | 740806 |
| LANDA HARATEGIA | 742758 |
| LEIGAR ELEKTRAGAILUAK | 740054 |
| LETE | 744199 |
| LOMBOK | 531068 |
| LUVIK OINETAKOAK | 744345 |
| MG BURDINDEGIA | 740831 |
| MURUAMENDIARAZ | 740345 |
| ORTOPEDIA ITZIAR SARASKETA | 743562 |
| OSORO OINETAKOAK | 740235 |
| OSTARKU ARGAZKI DENDA | 740646 |
| PATXI HARATEGIA | 743504 |
| PITXINTXU | 743206 |
| SARA JANTZIDENDA | 743555 |
| SKANDALO OIHALA ETA MERTZERIA | 743595 |
| SOFTLAN | 748105 |
| SUMOFIC | 744102 |
| URKIDI AHOLKULARITZA-ASEGUROAK | 741891 |
| UZURI OPTIKA | 740359 |
| XIGORTZE OPARIDENDA | 744341 |
| ZAZPI INFORMATIKA | 743787 |
| ZELETA BARAZKIAK | 743022 |
| ZIUR | 531205 |

*Diru laguntzailea:* EUSKO JAURLARITZA




# San Bartolome Eguna

## ABUZTUAK 24, *astelehena*

**9:00 ELGOIBARKO DULTZAINEROEN DIANA**

**9:45 UDAL TXISTULARI TALDEAREN DIANA**

**10:00 UDAL MUSIKA BANDAREN KALEJIRA**

**10:45 ELGOIBARKO ZAINDARIAREN PROZESIOA**
Udal Musika Bandak, txistulari taldeak eta Udalbatzak lagunduta. Denak batera, San Bartolome parrokiara joango dira, meza nagusira. Mezatan parrokiako abesbatzak eta Haritz dantza taldeak hartuko dute parte.



Jarraian, **SOKADANTZA** Haritz euskal dantzari taldearekin eta Udal Txistulari Taldearekin, sokadantzaren 75. urteurreneko ikuskizuna. Plaza Handian.

Ondoren, **UDAL MUSIKA BANDAREN KONTZERTUA**
Plaza Handian.

**16:30-21:00 HAURRENTZAKO PARKEA**
Plaza Handian (euria egiten badu Sigman).

**17:30 ERRALDOI ETA BURUHANDIEN KALEJIRA**
Herriko dultzaineroekin eta zezen-zikletekin batera.



**18:00 PROFESIONALEN ESKU-PILOTA PARTIDUAK**
Ikastolako frontoian.

**18:30 ZALDIEN DANTZA IKUSKIZUNA**
Plaza Txikian.

**19:00 KALEJIRA**
Tandarica taldearekin.

**23:00 SU, ARGI ETA MUSIKA IKUSKIZUNA**
San Bartolome parrokian.

**Jarraian, DANTZA IKUSKIZUNA**
Aukeran taldearekin, Plaza Handian.





Jose Angel Zabala
MAHASTI
Urdaitegia eta ardandegia
Merkatu plaza,30, 33, 34 • 615 76 03 72

MEKANOSA
Errosario, 27
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar
★ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
★ MULTIKOPISTAK
★ FOTOKOPIADORAK
★ ERLOJU INDUSTRIALAK
★ MARRAZKETA MATERIALA
★ INFORMATIKA
★ FAX

ETXEPE
Lan bereziak
T: 943 741 297 / 943 740 664
F: 943 744 321
www.etxepe.com
etxepe@etxepe.com

NORFO
Ondo pasa jaiak!
• ELKARTEEN ALDAKUNTZA, ELKARTZEA ETA ERAKETA.
• LAN, KONTABILITATE eta FISKAL AHOLKULARITZA.
• ALOKATZE KONTRATUAK
• JUBILAZIOA (Pentsioak)
PM Urruzuno, 6. Tel: 943 74 31 40 Faxa: 943 74 41 23

USATORRE
Taberna
San Antolin, 6 Tel. 943 74 17 99
Jai zoriontsuak igaro!

Ondo pasa jaiak!
ARBELOA
INMOBILIARIA
arbeloainmobiliaria@euskalnet.net
San Frantzisko, 34
Tel.: 943 74 84 27



# Txiki Eguna

## ABUZTUAK 25, *martitzena*

**7:30 DIANA**
Mauxitxa txarangarekin eta Herriko dultzaineroekin.

**Ondoren, SOKAMUTURRA,** Arnoren zezenekin.



**Jarraian, SALDA eta TXORIZO BANAKETA**
Ego-Toki, Zubi-Ondo, Gure Bide, Herri Gain eta Goiko Errota elkarteek eta Batzokiak banatuta.

**12:00 HAURRENTZAKO ZEZENTXO eta PONIAK**
Plaza Txikian.

**12:00 MAUXITXA TXARANGAREN KALEJIRA**

**18:00 PROFESIONALEN ESKU-PILOTA PARTIDAK**
Ikastolako Frontoian.

**18:30 ZEZEN ETA BETIZU ENBOLATUAK ERREKORTATZAILEEKIN ETA OZTOPOEKIN**
Plaza Txikian.

**19:00 KALEJIRA**
Pasai txarangarekin.

**22:30 DANTZALDIA**
Egan taldearekin, Plaza Handian.

*Egitaraua*

# Umeen Eguna

## ABUZTUAK 26, *eguaztena*

**10:30 HAURRENTZAKO ENTZIERROA**
King-Kongetik Plaza Txikiraino.

**10:45 ZEZENTXOAK ETA PONIAK**
Plaza Txikian.

**11:30-14:00 MARRAZKI LEHIAKETA**
Elizako arkupeetan
Gaia: Sokadantza
Antolatzailea: Zuhaitz aisialdi taldea

**14:00 HAURREN BAZKARIA**
7-14 urte bitartekoentzat, elizako arkupeetan. Bakoitzak bere ogitartekoa eraman beharko du. Edaria eta postreak banatuko dira.

**14:30 HAURRENTZAKO TAILERRAK**
Plaza Handian.
Euria egiten badu Sigman.

**18:00 MARRAZKI LEHIAKETAKO SARI BANAKETA**
Plaza Handian.

**Ondoren, ERRALDOI ETA BURUHANDIEN KALEJIRA**
Mauxitxa txarangarekin eta zezen-zikletekin.

**20:00 UMEENTZAKO JAIALDIA**
Mugi Mugi taldearekin, Plaza Handian.

**23:00 KONTZERTUA**
Euskodance 2009, Plaza Handian.




Biak
Jai zoriontsuak!
ileapaindegia
San Inazio, 4 • Tel.: 943 74 27 25

URKIDI
AHOLKULARITZA
Liberty Aseguruak
Antonio Urkidi
Josefina Fernandez
Tel.: 943 74 18 91
Faxa: 943 53 01 49
Kalamua, 12

KIROLDEGIKO TABERNA
Sanbartolomeetan bazkari eta afariak
Ondo pasa jaiak!

San Roke 1, Tel.: 620 13 59 58
Aurretik enkarguak egin behar dira

Olaia
estetika
ONDO PASA JAIAK!!!
San Inazio, 4 behea - Tel.: 943 74 27 25
- Garbiketak
- Makilajeak
- Aurpegi-tratamenduak
- Gorputz-tratamenduak
- Solariuma
- Masajeak
- Manikurak
- Depilazioak
- Laserra

Imprenta Arrillaga
■ Ezkontza gonbidapenak ■ Bisita txartelak
■ Hileta oroigarriak ■ Kartelak - etiketak ■ e.a.
Ondo pasa jaiak!
Trenbide Kalea, 13 - behea
Tel.: 943 74 01 87 ■ e-posta: arrillagasl@euskalnet.net

ecenarro
Ondo pasa jaiak!
Barruko arropak • Umeentzako erropak
San Frantzisko, 10 Tel: 943 74 26 19

ESTUDIOS ARRILLAGA



PROIEKTU ETA ERREFORMAK
GREMIOEN ZUZENDARITZA
ALTZARIGINTZA OSOA



LAGUN ARO
Euskadiko Kutxa Taldekoa

Ondo pasa jaixak!

Santa Ana, 5
20870 Elgoibar (Gipuzkoa)
Te.: 943 74 73 70
Faxa: 943 74 10 51
E-posta: ygarcia@seguroslagunaro.com

# Jubilatuen Eguna

## ABUZTUAK 27, *eguena*

**8:00 DIANA**
Herriko dultzaineroekin.

**Ondoren, SOKAMUTURRA**
Arnoren zezenekin.

**12:00 HEGALUZE DASTAKETA**
Nafarroa Plazan, Danborradaren batzordeak antolatuta.

**12:30 JUBILATUEI ESKAINITAKO MEZA**
San Bartolome parrokian.

**14:00 JUBILATUENTZAKO BAZKARIA**
Olaizaga kiroldegian, Eguren orkestrak alaituta.

**18:30 TXAKUR ERAKUSTALDIA**
Agility txakur erakustaldia, Plaza Txikian.

**19:00 DANTZA SOLTEKO LEHIAKETA**
Plaza Handian.

**Ondoren, ELGOIBARKO DANTZARIEN SOINU ZAHAR DANTZEN ERAKUSTALDIA**
Dorleta Fernandezek eta Maria Ferreirok egingo dute dantza. Plaza Handian.



**19:30 ANTZERKIA**
Trapu Zaharra taldearekin, *Lehiaketa* ikuskizuna. Plaza Txikian.

**22:30 SUZKO IKUSKIZUNA**
Deabru Beltzak taldearen *Bande deplacee* ikuskizuna.

## Gazteen Eguna

**ABUZTUAK 28,** *barixakua*

**8:00 DIANA**
Herriko dultzaineroekin.

**Ondoren, SOKAMUTURRA** Arnoren zezenekin.

**Jarraian, SALDA ETA TXORIZOA**
Ego-Toki, Zubi-Ondo, Gure Bide, Herri Gain eta Goiko Errota elkarteek eta Batzokiak banatuta.

**12:30 GOITIBEHERAK**
Azkue-San Roken. Antolatzailea: Zuhaitz Aisialdi Taldea.



**Ondoren, MAUXITXA TXARANGAREN KALEJIRA.**

**17:30-20:00 FUTBOL PARTIDAK ZEZEN ENBOLATUEKIN**
Plaza Txikian. Antolatzailea zuhaitz aisialdi Taldea.

**19:00 KALEJIRA**
Zo Zongo fanfarrearekin.

**23:00 KONTZERTUA**
Brahman eta Kauta taldeekin, Plaza Handian.












# Baserritarren Eguna

**ABUZTUAK 29,** *zapatua*

9:30 **GANADU LEHIAKETAKO PARTAIDEEI ONGIETORRIA**
Haritz dantzari taldeak eta Udal Txistulari Taldeak harrera egingo diete Nafarroa Plazan

Jarraian, **BALTZOLA ANAIAK TRIKITILARIEN KALEJIRA**

10:00 **GIPUZKOAKO LIMUSIN GANADUAREN TXAPELKETA**
Plaza Txikian.

11:00 **SAGARDO LEHIAKETA ETA DASTAKETA**
Plaza Handian, Sallobente elkarteak antolatuta.





**11:00 GAZTA LEHIAKETA ETA SALMENTA**
Nafarroa Plazan. Antolatzailea: Kalamua elkartea.

**12:00 KALEJIRA**
Elgoibarko kale kantariek alaituko dituzte kaleak Euskal Herriko abesti herrikoiekin.

**13:00 GANADU ENKANTEA**
Plaza Txikian.

**13:30 GAZTA LEHIAKETAKO SARI BANAKETA**
Nafarroa plazan.

**14:00 SAGARDO LEHIAKETAKO SARI BANAKETA**
Plaza Handian.

**14:15 GANADU LEHIAKETAKO SARI BANAKETA**
Plaza Handian.

**14:30 BASERRITARREN ANAIARTEKO BAZKARIA**
Sigma jatetxean, Eguren orkestra eta bertsolariekin.

**17:00 BALTZOLA ANAIAK TRIKITILARIEN KALEJIRA**

**18:00 KALEJIRA**
Elgoibarko kale kantariek alaituko dituzte kaleak, Euskal Herriko abesti herrikoiekin.

**18:00 SAN BARTOLOMEETAKO HARRIJASOTZE TXAPELKETA**
Plaza Handian, euria bada, Ikastolan.
Antolatzailea: Kalamua elkartea.

**22:30 DJ GAUA**
DJ Marcos, DJ Rufoh eta DJ David MKrekin, Madalako parkean.

**23:00 KONTZERTUA**
Golden Apple Quartet taldearekin, Plaza Handian.

# OSASUN GIDA

MEDIKUNTZA ALTERNATIBOAK
*Kemen Belardenda*
*Berria!!! Naturopata, Iridiologoa eta Homeopata.*
(Pisu kontrola ,"Dieta erraza" mehetzeko tratamendua... Naturopatia, Bach loreak, PNL, makrobiotika, janari biologikoak, nutrizio eta osasun ikastaldiak). Quantum scio (estres kontrola) tarot terapeutikoa eta familia konstelazioa (banaka)
San Bartolome, 25 - Tel.: 943 744 031
Egunero: 9:00-13:00 / 16:30-20:00

*Sanatana Dharma*
*Yoga Elkartea*
Urasandi, 9
Tel: 943 748 593 (Idoia)
685 722 131
Astearte eta ostegunetan:
10-11:30 /13:00-14:00/
15-16:30 / 18-19:30/20-21:30
*Mendaro*
Astelehen eta asteazkenetan:
10-11:30/15-16:30
Astearte eta ostegunetan:
20:00-21:30

FISIOTERAPIA
*Ainhoa Fisioterapia*
Eragozpen fisikorik egongo balitz, etxez etxeko zerbitzua eskainiko litzateke.
Tel.: 943 531 953 / 669 565 745
Goiz eta arratsaldez .
Jausoro, 6 behea

OPTIKAK
*Ikus optiko-optometrista*
San Bartolome, 10
Tel: 943 743 734
Egunero: 9:30-13:00 /
16:30-20:00
*Uzuri*
(Optometria, tonometria, kontaktologia, audiometria)
San Frantzisko, 21
Tel: 943 740 359
Egunero: 9:30-13:00 /
16:30-20:00

ORTOPEDIAK
*Itziar Sarasketa*
San Frantzisko, 12
Tel: 943 74 35 62
Egunero: 9:30-13:00 /
17:00-20:00

MASAJISTAK
*Victoria Iraegi*
(Esku-terapiak: kiropraxia, dranatzaile linfatikoa, osteopatia, kirol masajea (bendaje funtzionala eta "taping neuromuskularra", lehiaketa bendajea.) San Frantzisko kalea, 40 (atzealdea)
Tel.: 943 740 770
Astelehenetik ostiralera :
8:00 / 14:00

HORTZ KLINIKAK
*Irale*
Errosario Kalea, 7 behea
(Elgoibar)
Tel: 943 743 679
Zeharkalea, 8 behea (Ermua)
Tel: 943 177 134
*irale@irale.com*
*www.irale.com*

*Leku eder*
Elena Herrero Lobo
Aita Agirre enparantza,
5, behea
Tel: 943 530 053
*lekueder@infomed.es*

*Beitia Arriola*
- Odontologia orokorra eta ortodontzia
- Haurren Hortzagin programa
- Panoramikak eta telerradiografiak
Trenbide kalea,
21behea
Tel: 943 531 869

PODOLOGOAK
*Oinberri*
Errosario kalea, 25
Tel: 943 741 795
Astelehenetik ostiralera:
9:00-13:30
15:00-19:30

*Iñigo Arrillaga Yudego*
- Hanken afekzioen terapia.
- Neurrira egindako plantilak.
- Hanka diabetikoen zainketa.
- Ordenagailuaren bidezko hankaren azterketa.
San Frantzisko kalea,
20 behea
Tel: 943 741 645
Ordutegia: 9:30-13:30 /
15:30-19:30

# Belaustegi Baserria JATETXEA

San Migel Gaina z/g · Tel. 943 74 31 02 · www.belaustegi.com



**Sanbartolomeetan menu berezia**

*Ondo pasa jaixak Belaustegiren partez!*







**Portxe-jardinean bazkaldu edo afaltzeko aukera.**

**Ostiral eta larunbatetan, gaueko 10etatik aurrera kopak jardinean.**

Arregitorre, 2
Tel.: 943 748 019
E-posta: bulegoa@elgoibarbhi.net
www.elgoibarbhi.net

**ELGOIBAR ARREITURRE BHI**
**eta**
**MEKA GLHBI**



**HERRI ESKOLA**



Kalamua, 18
Tel.: 943 740 879

Jai zoriontsuak opa dizkizuete!

SLKensington
Hizkuntza Zerbitzuak

IKASI INGELESA DIBERTITUZ benetan!!



IKASFUN!!!
UDAKO PROGRAMA

IKASI INGELESA DIBERTITUZ benetan!!

ZORIONAK IKASLE GUZTIOI
CAMBRIGEKO AZTERKETAN LORTUTAKO EMAITZENGATIK!!

**ONDO PASA JAIAK!**

- Ingelesa ikasteko modurik dibertigarriena.
- Programa trinkoa.
- Dinamikoa eta praktikoa.
- Ingelesez komunikatzen ikasiko duzu.
- Talde eta lan-metodo ugari.
- Adin taldeak: 6-8, 9-11, 12-14 urte.

Borroto pasealekua, 18 AIETE
20009 DONOSTIA
Tel: 943 31 33 77
E-posta: *donosti@kensington-sl.es*

San Inazio kalea, 4
20870 ELGOIBAR
Tel: 943 74 02 36 - Faxa: 943 74 35 12
E-posta: *idiomas@kensington-sl.es*

# Jaiak bizi bai, baina nola?

**Hamaika modu daude jaiak ospatzeko. Bakoitzak bere eran, gainontzekoak errespetatuz, ahalik eta ondoen pasatzen ditu festak. Hala ere, adinak mugak ezartzen ditu, eta horren arabera jaiak ospatzeko modua asko aldatzen da. Adin diferenteetako elgoibartarrek jaiak nola bizi dituzten jaso du BARRENek ondorengo orrietan. Lehen eta orain, hainbat herritar ez dira oharkabean pasatzen sanbartolomeetan.**



*Ñaka, Dakinta eta Fonta, Txiki eguneko dianan.*

## MIKEL DAKINTA:

### "Astebete behar izaten nuen errekuperatzeko"

Azken urteotan lagata dauka Mikel Dakintak San Bartolome jaietako zeregina, baina garai batean ez zen oharkabean pasatzen sanbartolomeetan.

**Noiz eta nola hasi zinen sanbartolomeetako *antzerkiak* antolatzen?**

Urte asko eman nituen tabernan lanean, eta jaiak beti barraren atzeko aldetik bizi izaten nituen. Kanpoko aldean jendeak zein ondo pasatzen zuen ikustea gogorra egiten zitzaidan. Parrandak ere egiten nituen, baina beste modu batean, hurrengo egunean berriz tabernan lan egin behar nuelako. Ostalaritza laga eta erremintamakinaren munduan sartu nintzenean hasi nintzen sanbartolomeak behar den bezala ospatzen. 1992an irten nintzen estreinakoz. 26 urte neuzkan, eta ia 40 egin arte ibili nintzen. Hiru asteko oporrak hartzen nituen udan, eta bat jaien ondoren izaten zen, errekuperatzeko.









**Batzutan bakarrik, baina herriko beste hainbat lagunekin ibiltzen zinen askotan.**
Bai, jende diferentearekin egiten nuen tontoarena. Nire laguntzailerik bereziena 8 urteko mutiko bat izan zen, Julen Arteaga. Ama elgoibartarra dauka, baina Usurbilen bizi dira. Txiki egun batean gurasoei baimena eskatu zien nirekin irteteko. Lehenengo tabernan mostoa eskatu zuen mutikoak, baina ez zegoela gustura igartzen nion. Lotsatuta zegoen. Festa giroan erabat murgiltzea nahi zuen, kamiseta ardoz zikintzea, alegia. Halaxe egin nuen, eta hantxe hasi zen gure ibilbidea. Bospasei urte egin genituen Txiki egunean elkarrekin irteten.

**Nola bururatzen zitzaizun urte bakoitzean egin behar zenuena?**
Goizean elkartzen ginen, eta eguneko plana zein zen azaltzen nion mutikoari. Urte batean, txarangako kide izan behar genuela erabaki nuen. Egunkariarekin pare bat turuta egin, eta Mauxitxakoekin egin genuen kalejira. Beste urte batean, telebistako *Jaiak* programa modan zegoenean, kamera bitxi batzuk egin eta jendeari entrebistak egiten jardun genuen. 20 urte inguru dauzka orain mutikoak, eta batzutan ikusten dut hemen parrandan. Ni erretiroa hartuta ikusten nau, eta bera sasoi betean dago.

**Dakinta karrotxoarekin kalean ikustea ohikoa zen.**
Lehenengo karrotxoa 1993. urtean atera nuela uste dut. Beni kartoneroak txatartegia zeukan, eta han aurkitzen nuen urtero tresnaren bat: garbigailuak, telebistak, karrotxoak… Urte batean ileapaindegi bat irudikatu nuen, eta 5:00ak aldean jendeari bizarra mozten jardun nuen. Telebista batekin irten nintzen beste behin. Todorrek eta biok telebista programa bitxi bat eskaini genuen. Oso ona izan zen hura. Aipatzeko beste kontu bat da Gestoren tabernan Todorrekin eman nuen kontzertua. King-Kong azpian jartzen zuten orduan Gestoren taberna. Arduradunei esan genien kontzertua eskainiko genuela 24:00etan, eta taberna jendez gainezka zegoen gure zain. Bi ordu berandua-go iritsi ginen, eta goizaldera arte jardun genuen gitarra jotzen. Ahaztezina!



*Dakinta eta Todor, jaiei buruzko telebista saioa eskaintzen.*


API Burtsa informatikoa



GABILONDO
317 api
INMOBILIARIA AGENTZIA
Zuzenbidean lizentziatua
API { Edurne Gabilondo Loyola
Jose Mª Azpeleta Iturricastillo
Jai zoriontsuak denoi
Errosario kalea, 21 • ELGOIBAR • Tel: 943 74 44 67

**Zein izan da bizi izan duzun unerik onena?**
Bai lehen eta baita orain ere, jaietako unerik onena Txiki eguneko diana da. Hamar bat urtean herriko onenak elkartzen ginen diana horretan: Fonta, Ñaka eta ni. Gaupasa egin ondoren, 7:00etan elkartu eta txarangaren zain egoten ginen. Fontak gainera, txarangan jotzen zuen. Zezena irteten zenean erretiratzen ginen, ez baikinen korrika egiteko gai. Ondoren, merkatu plazako arraindegira joan eta zigala kilo bat erosten genuen. Merkatu plazako tabernan prestatzen ziguten, eta bertan jaten genuen. Goiz guztia hantxe pasatzen genuen barrezka. Eguerdian txaranga, eta gorputzak gehiago ezin zuenean etxeratzen ginen.

**Gaur egun, nola ospatzen dituzu jaiak?**
2002an laga nion tontoarena egiteari, eta gaur egun beste modu batean bizi ditut sanbartolomeak. 46 urte ditut, eta gorputzak ez du lehen beste agoantatzen. Nire ilusioa orain ere Txiki Eguneko diana ikustea izaten da. Lehen txarangarekin dantzan joaten ginenak begira egoten gara, baina oso polita izaten da.



*Ileapaindegi honetan, herritarrei ilea mozten eta bizarra egiten jardun zuen Dakintak.*



*8 urteko mutikoarekin 'Jaiak' programa irudikatu zuten.*

# ZIGOR CORNEJO:

## "Orain nahiago dut jaiak egunez bizitzea"



Akaso askotxo esatea izango da, baina azken urteotan Zigor Cornejok hartu Mikel Dakintaren lekukoa. Bere esanetan, ezin dira konparatu: "Dakinta egunez ibiltzen zenean, ni gauez irteten nintzen", dio Cornejok. Ondo pasatzea gustatzen zaio, eta horretarako edozer egiteko prest egoten da. "Ez daukat lotsarik, eta lagun artean beti egiten dugu zeozer berezia". Azken urteotan ilearekin eta bizarrarekin jolastu izan du, eta orrazkera bitxiekin irten izan da kalera: "Txupinazoaren ondorengo bazkarian ileapaindegi bihurtzen dugu sozidadea. Ile ona daukat, eta berehala hazten zait berriz". Beti animatzen da beste lagunen bat ere, eta hortxe hasten dute festa.

Oro har, egun guztiak gustatzen zaizkio Cornejori. Bezpera egunak badauka xarma: "Egun horretan iristen dira herritar gehienak oporretatik, eta elgoibartarren festa izaten da". Txiki eguna, dudarik gabe, onena dela aipatu du: "Orain dela pare bat urte plastiko bat erosi eta lurrean patinatzen jardun nuen. Udaltzainek ere kolaboratu zuten ura botatzen, eta jende guztia inplikatu zen". Hurrengo urtean gauza bera egin zuen, baina plastikorik gabe. "Ahaztu egin zitzaidan erostea, eta kamisetarekin egin nuen". Gazteen eguna, eta baserritarren eguneko sagardo lehiaketan sortzen den giroa ere atsegin ditu. Azken urteotan, bestalde, jubilatuen eguneko hegaluze dastaketan ere, izugarri disfrutatzen duela aipatu du.

Gaztetan gauez irteten zen kalera, eta egun guztia lo pasatzen zuen. Azken urteotan, gauez ere ibiltzen den arren, eguneko giroa gustatzen zaio gehiago. Jendea animatu nahi du jaietan egunez irtetera, eta ekintzetan parte hartzera. "Gaztetan ez gara konturatzen, baina jaiak egunez politagoak dira". Lagunekin egoteko eta elkarren artean hitz egiteko aukera gehiago eskaintzen du egunak. San Bartolome eguneko sokadantza ikustera irten zen estreinako aldian sekulako sorpresa hartu zuela aipatu du, eta orain urtero joaten ahalegintzen da: "Batzutan gaua luzatu egiten zait, baina hala ere, goiz jaiki eta eguerdirako kalera irteten ahalegintzen naiz. Bere ustez, sanbartolomeak gauez beste edozein zapaturen modukoak dira.

Egitarauari dagokionez, jaiak ondo daudela iruditzen zaio, baina badago zer hobetu. Urtero antzeko gauzak egoten direla esan du, eta garai batean Deba ibaian behera egiten zen gin-kana berreskuratzea gustatuko litzaioke. Jendearen parte hartzea beharrezkoa dela dio: “Jendea ekintzak ikustera joaten da, baina gehiago parte hartu beharko luke, nigandik hasita”.

San Bartolome jaietan herrian egoten ahalegindu izan da beti. “Herriko jai nagusiak dira, eta egon egin behar da”. Orain dela urte batzuk Iruñeko enpresa batean lanean pasatu zituen jaiak, eta gogorra izan zela gogoratzen du: “Hiru elgoibartar geunden, eta txupinazo alternatiboa egin genuen enpresan”. Ahal duen bitartean, sanbartolomeetan ez du hutsik egingo Cornejok.



*Atzetik begiratuta, erraz ezagutzen da nor den.*

# ENARA, GARAZI ETA BIDANE:

## “Ea aurten 4:00ak arte irteten lagatzen diguten”

Enara Castrillejo, Garazi Ayesta eta Bidane Gonzalez 15 urteko neskak dira. Adin zaila: umeak, nerabeak ala gazteak? Zein da euren lekua jaietan? Umeen eguna ez zaie gehiegi gustatzen, eta gazte eguneko ekintzekin gehiago gozatzen dute. Egunez zein gauez ibiltzea gustatzen zaie, eta gurasoekin negoziatu behar izaten dute etxera itzultzeko ordua. Iaz 3:00ak arte zeukaten muga: “Ea aurten 4:00ak arte irteten lagatzen diguten”, esan dute. Gaupasarik ez dute inoiz egin, baina gurasoen baimena izanez gero, gustura egingo lukete. Tabernetan sartzen dira, “baina ez dugu edaten, ez daukagu horren beharrik ondo pasatzeko”. Ordutegiarekin batera, dirua da neska horien beste oztopoetako bat. Gurasoek eta senideek emandako pagarekin pasatzen dituzte jaiak. Egun asko izaten dira, eta diru asko gastatzen dela azaldu dute. Barraketan, salmenta-postuetan eta gozokietan gastatzen dute, batez ere. Festetarako dirua aurreztuta edukitzen dutela azaldu dute. Ilusioz beterik egoten dira sanbartolomeen zain. Abuztuan kanpora joaten dira oporretan, baina etxekoei argi esaten diete herriko jaietarako Elgoibarrera etorri behar dutela.

Koadrilan ospatzen dituzte jaiak. San Bartolome bezpera egunean koadrilako alkandora jantzi, eta txupinazora irteten dira. “Txanpaina edo gaseosa botilak zabalduz hasten ditugu jaiak”. Egunik onena Txiki Eguna izaten da eurentzat. Lehen Mauxitxa txarangarekin kalejira osoa egiten zuten, baina iaz Madalan ekin zioten dantzaldiari, “dena egitea gehiegizkoa da-eta”. Errosario kalean bizi izaten dute unerik onena, eta kalejira amaitzen denean koadrilako bazkaria egiten dute.



*Koadrilan ospatzen dituzte jaiak neska gazte hauek.*

Plaza inguruan edota Madalan ibiltzen dira, giroa dagoen lekuetan. Kontzertuak entzun, dantza egin eta sokamuturra ikustea gustatzen zaie, hori bai, portalen batetik. 15 urte, eta zazpi egun disfrutatzeko.






# ASKETA S.L.

Eraikuntzako zerbitzu integrala

Maxpe, 3-5 behea
20820 DEBA
Tel.: 943 191 952 (6 linea)
Faxa: 943 192 460
E-posta: asketa@telefonica.net
www.asketa-reformas.com

**Fatxada eta teilatuetan espezialitatea**
**Kalitaterik handiena preziorik onenean**



*Lehen*



*Orain*

# BIOK dekorazioa

Santa Klara, 26 behea ezkerra
Te.: 943 741 552 / 606 431 120

**BERMERIK HANDIENA AKABERA ETA GARBIKETAN!**

*www.biokdekorazioa.com*
*biokdekorazioa@euskalnet.net*

Eskatu aurrekontua
konpromisorik gabe!






# Mauxitxa txaranga 40 urtez kaleak alaitzen

## Taldeak 1970 urteko Txiki Egunean jo zuen estreinakoz Elgoibarren



*Mauxitxa txarangako hasierako bederatzi kideak.*

Mauxitxa txarangak 1970 urteko Txiki Egunean jo zuen lehendabizikoz Elgoibarren. Bederatzi lagun zeuzkan taldeak, eta harrezkero musikari mordoa pasatu dira taldetik. Herriko jaiei beste saltsa bat emateko sortu zen taldea, eta aurten 40. aldiz joko dute Txiki Egunean.

*Makillak* koadrilako zazpi lagunek sortu zuten hasierako talde hura: Luis Zubiaurre *Balle* (klarinetea), bere anaia Victor (saxofoia), Rikardo Gorriti (kaxa), Juan Luis Arregi (bonboa), Rikardo Mujika (txapak) eta Txomin Mujika (bonbardinoa). Guztiak zuzentzen, Jose Alberto Ansola *Mauxitxa*. Geroago Jose Antonio Osoro *Katxo* eta Jose Angel Zubiaurre *Balle* batu ziren taldera.

Instrumentuak hala nola lortu eta Udal Musika Bandaren akademian entsaiatzen zuen taldeak. Alkandora zuria eta fraka urdinak jantzita Soraluzeko Santa Ana Txiki Egunean jo zuten lehen aldiz.

### 'Lanaren diana'

Baina jaiak girotzeko bakarrik ez: San Bartolome Jaiak amaituta, lanera bueltatzeko eguna iristen denean, irailaren 1ean, despertadore lanak ere egiten ditu Mauxitxa txarangak: *Lanaren diana* jotzen du. Txarangak eta Jaime Arrese zenak egindako apustu baten ondorioa da diana. Txarangakoekin afari bat jokatu zuen Arresek, alkate zen garaian, ezetz irailaren lehenengoan lanera joan aurretik diana jotzera joan. Esan eta egin. Harrezkero, anekdota izan zena ohitura bihurtu da.

Herri askotan aritu izan da Mauxitxa txaranga bere errepertorioarekin: kalejirak, balsak, jotak, ye-yeak, foxak pasodobleak... eta urtero kale egiten ez duten hitzordua: Txiki Eguna.



*Gaur egungo txaranga, iazko Txiki Eguneko kalejiran.*














FONTANERÍA
Ibámar
ITURGINTZA
BEROGAILUA
GASA
GASOILA
AIRE EGOKITUA
ALTZARIAK
MANPARAK
OSAGAIAK
GREMIOEN KORDINAZIOA
ERREFORMAK
Bernardo Ezenarro kalea, 2 behea
Erakusketa/Faxa: 943 531 847
Floren Cid: 647 463 436
E-posta: ibamar@euskalnet.net




MAPFRE
Jai zoriontsuak
opa dizkizuegu!
San Frantzisko, 40 - Tel: 943 74 05 82 / 943 74 14 04 - Faxa: 943 74 17 07
E-posta: patxiza@mapfre.com

BIOK dekorazioa

Upaiz zaharra, 14
Tel.: 943 741 552 / 606 431 120
www.biokdekorazioa.com
biokdekorazioa@euskalnet.net



PROMOZIOA:
10eko deskontua



Erreminta desberdinak,
pintura, berehalako koloreak,
margotutako paperak,
mihiseak, olio-pinturak,...

Estoreen gama zabala,
gortina tolestuak,
gortina beneziarrak...
behar mota guztietarako.

MH Makina Erremintaren Institutua
Instituto de Máquina Herramienta

Ondo pasa 2009ko
San Bartolome jaiak!



IMH Makina Erremintaren Institutua
Azkue Auzoa, 1 - 20870 Elgoibar
Tlfnoa. 943 74 41 32 - Faxa 943744153
imh@imh.es - www.imh.es



jai zoriontsuak!

elgoibar ikastola

Herri Onurako izendatua

NOVAK C.B.

Mekanizatuak

Olaso industrialdea 27
Tel. 943 74 85 73
Faxa: 943 74 39 01
20870 Elgoibar
novak@menovak.com

Jai zoriontsuak igaro!

EIZAGUIRRE

OKINDEGIA

LANTEGI PROPIOA

Espezialistak artisau ogietan,
txapata ogietan, opiletan...

"Betiko ogia"

Ondo pasa jaiak!



San Frantzisko kalea, 22 behea
Tel. 943 74 04 88

Gabi jatetxea



Ondo pasa jaixak!

Egin erreserba telefonoz
San Bartolome jaietarako

Nafarroa enparantza z/g • Tel.: 943 741 230

IHARDUN
MAQUINAS ESPECIALES, S.L.



Makina bereziak

Albitxuri, 1 • 3. pabilioia, K-L
Tel.: 943 74 44 66 • Faxa: 943 53 14 74
ihardun@ihardun.net • www.ihardun.net



Elgoibar: Errosario kalea, 35. zbkia.
Kalitatezko Etxebizitzak.

Ondo pasa jaiak!

SAGARMIÑA
ERAIKETAK S.L

Hondartza 3-4, Behea.
20820 DEBA - GIPUZKOA
Tel./Faxa: 943 192 249
Mugikorrak: 629 639 685 / 629 641 940
sagarmina@sagarminaeraiketak.com
www.sagarminaeraiketak.com

- Etxegintza eta Erreforma Lanak
- Txalet eta Baserriak
- Teilatuak, Fatxadak, e.a...
- Gremioen arteko Koodinazioa
- 35 urtetako esperientzia

# Lan pixka bat egiteko eta batez ere gozatzeko deia egin die elgoibartarrei Madalako Jai Batzordeak

## Herri giroko egitarau partehartzaile eta erreibindikatiboa antolatu dute Gune Askean



Aurten Madalak itxura ezberdina dauka, baina San Bartolome Jaiak iritsi dira, eta Madalako Jai Batzordeak prest dauka egitaraua. Herritarrei "jaietan parte hartzeko, aldarrikatzeko, lan pixka bat egiteko eta, batez ere, gozatzeko" deia egin du batzordekak. "Hori bai, beti ere burua erabilita!".

Batzordeak aspaldi eskatu zuen "ganorazko" eszenatokia jartzeko Madalan, eta horretan dezente hobetu dutela uste dute: "Itxuraren inguruan iritzi desberdinak daude gure artean, baina erreformari dagokionez, aspaldiko gure eskaera zen ganorazko eszenatokia, eta horretan uste dut dezente hobetu dugula. Parkean txosnak jartzeko ur eta argindar tomak ere egokitu dituzte. Bestalde ez da lehen zegoen gerizperik izango, ez eta esertzeko petrilik ere".

### Aurten ere bost txosna

"Parkearen erreforma gure esku egon izan balitz, ez litzateke gaur dagoen moduan egongo, baina kontziente gara txosnak urtean astebetez jartzen ditugula. Orain arte bezala gure ekarpenak egingo ditugu, gunea urtez urte hobetzeko (lur azpiko komunak taldeentzako egokitzea...)", diote batzordeko kideek.

Gunearen aldaketen ondorioz txosnak ez zirela sartuko uste zuten batzuek, baina sartuko direla esan dute batzordekoek: "Aurten probatuko dugu txosnak era batean jarrita eta ikusiko dugu nola geratzen den gunea, bai dantzarako, bai kontzertu-antzerkietarako, bazkarietarako eta abar. Datorren urtean, hobetu ahal izango bada, egingo ditugu egokitzapenak".

Prestatutako ekimenen artean, urteetan indarra hartu duen ekitaldia da Txiki Eguneko dantzaldia, baina ez da bakarra: "Karaokeak ere azkenengo urteetan arrakasta handia lortu du, eta egita-









rauko beste *fijo* bat da jadanik. Txiki Eguneko dantzaldia berezia da, jende oso desberdina elkartzen delako dantzara egun horretan. Madalako guneak, kokapenagatik eta neurriagatik dantzarako giroa errazten du, eta dantzari mordoa elkartzen dira bertan. Dantzara etortzen direnek zein bertan jo izan duten taldeek esan izan digute oso gustora aritzen direla, giroa ezin hobea izaten dela horrelakoetarako".

### "Ez dira ikuskizun huts"

Jendea urtero-urtero dantzan ikusteak dantzaldia antolatzera animatzen ditu batzordekoak: "Argi dago Elgoibarren horrelako plaza girorik aurkitzea zaila dela, eta jendea dantzan ikusteak antolatzera animatzen gaitu. Jai eredu partehartzaileago bat sustatzea dugu helburu, eta Txiki Egunean jendeak dantza eginez parte hartzen segitzen duen artean, antolatzen jarraituko dugu. Bide berean doaz karaokea eta antzerako ekimenak, izan ere jaiak herritarronak dira eta geuk egiten ditugu, ezin dute ikuskizun huts izan".

Bestalde, San Bartolome Jaietan ezin izango direnekin egon gogoratu dira Madalako Jai Batzordekoak: "Gure besarkadarik beroena herritik urrun preso edo *desherrian* aurkitzen direnentzat. Aurten, inoiz baino gehiago, gogoan eta gurekin izango ditugu. Denok elkarrekin egongo garen egunean orduan bai jaiak!".

## GUNE ASKATUKO EGITARAUA

**22 ZAPATUA**
80ko festa
Gaztetxearen hirugarren urteurrena: Urteurrena ospatzeko 80ko hamarkadan girotutako festa egingo dute. Disko jartzaileak, mozorroak eta denetarik egongo dira.

**23 DOMEKA**
18:00 Jaien Hasiera
24:00 Karaokea
06:00 Disko jartzaileak

**24 ASTELEHENA**
23:00 Kontzertua

**25 MARTITZENA**
15:00 Herri bazkaria
Preso eta iheslarien aldeko herri bazkaria.
Arratsaldean eta gauean, dantzaldia Haitzama taldearekin

**27 EGUENA**
Iluntzean, Mus txapelketa

**28 BARIXAKUA**
Eguerdian, Patata tortilla lehiaketa
14:30 Herri bazkaria
Ondoren Kalejira
Gauean Kontzertua
Sexplotion (Zumaia), Egurra Eta Kitto (Azpeitia).
06:00 Disko jartzaileak gaztetxean

**29 ZAPATUA**
Arratsaldean Bertsolariak
20:00 Manifestazioa Madalatik.
*Kondena betea duten presoak kalera. Gaixo larriak kalera. Euskal presoak Euskal Herrira*! lemapean.
06:00 Disko jartzaileak gaztetxean





IBARRENEA
okindegia
1890tik
Ondo pasa Sanbartolomeak!!
ARTISAU-OGIA
EGUR-LABEAN EGINDAKOA,
KONTSERBAK ETA
ARDOAK
San Bartolome 28
Tel.: 680 724 060

## Erretratu zaharra

### 1962

Aste honetako erretratu zaharra Mikel Gorostizarena da. 1962. urteko herri-lasterketan ateratako argazkia da, ekainaren 22an hain zuzen ere. Ordu hartan Udalak eta CD Elgoibarrek antolatzen zuten proba hori, eta urte honetan Txomin Perurenak irabazi zuen. Gerora txirrindulari ospetsua izan da Perurena, eta Elgoibarren Etxaniz Memoriala irabazi zuen 1965ean.

Gure Bide elkartea beti egon da txirrindularitzari lotuta, eta aurten 50 urte egin ditu. Bere arduran izaten du San Bartolome bezpera egunean jokatzen den Etxaniz Memoriala. Ikus ditzagun erretratruan azaltzen direnak:

**Ezkerretik eskumara:** Eugenio Mugika (†), Juan Luis Apellaniz, Mikel Gorostiza (urte hartako presidentea), Mirentxu Beloki, Txomin Perurena (irabazlea). Eskumako aldean perfilez ikusten den gizona Bizente Jauregibarria *Bitxito* da, Eibarko laguntzailea.



PREZISIO MUNDU BAT
myl precision spindles
& spindle repairs service
MYL S.A.
Ondo pasa jaietan!
Erramone poligonoa, 1-3-5 - 20850 **MENDARO**
Tel. 943 75 70 03 · Faxa: 943 757 130
E-posta:myl@myl.es · http:www.myl.es

# Gremioen GIDA

## Aroztegiak

**Asima**
Mota guztietako arotz lanak
Ermuaranbide, 18
☎ 687 15 02 26
☎ 650 02 66 31

**Biena**
Neurrira egindako lana
Ermuaranbide, 16
☎ 943 74 31 16

**Garcia**
Aluminioa eta PVCa
P. Muguruza, 30
☎ 943 74 32 38

**Imar**
Aroztegia
Olaso 15,55 pabilioia - A1
☎ 943 53 14 71
☎ 609 05 49 78
Era guztietako arotz-lanak

**Lodoso Leihoak**
Sigmako industrialdea
Xixilion 2-2. pabilioia - 3. zenb.
☎ 943 74 34 90
Faxa: 943 74 73 12
www.fjlodoso.euskalnet.net

**Ulazia**
Aroztegia eta enbalajeak
Santa Klara, 10
☎ 943 74 05 47

## Igeltseritza

**E. Arandia**
Urasandi, 22 behea
☎ 605 70 52 04

## Lorezaintza

**Pagoa loradenda**
Nafarroa plaza 1
☎ 943 74 01 89
☎ 688 631 307

## Iturgintza, berogailua, eguzki energia, gasa eta klimatizazioa

**Ibámar**
Bernardo Ezenarro, 2
☎ 943 53 18 47
☎ 647 463 436 (Floren)

**Ongi**
Olaso Poligonoa, 15-68 pabilioia
☎ 943 74 28 80

**Pagoaga**
San Antolin, 13
☎ 943 74 02 79

**Pagoerrota**
Herriko Enparantza, 10 behea
MENDARO
☎ 943 75 60 44/659 33 43 23

**Tellabide**
Azpilgoeta, 7 · MENDARO
☎ 943 75 50 62/607 75 50 62

**Santana iturgintza eta instalazioak**
Urasandi, 17
☎ 943 74 05 30/605 71 49 05
Faxa: 943 53 18 25

**Zubizarreta instalazioak**
Ubitarte, 5 behea
☎ 943 74 07 89/650 58 61 44

## Autoentzako tindatutako kristalak

**Glas Control S.L.**
Olaso 27, 47. pabiloia
☎ 943 74 30 94

## Proiektu eta erreformak

**Estudios Arrillaga**
Errosario, 15 behea (Elgoibar)
☎ 943 744 055/943 744 019
Arragueta, 12 behea (Eibar)
☎ 943 200 698

## Elektrizitatea

**Carranza**
Lehen Aramar, orain Carranza
Morkaiko, 1
☎ 943 74 12 80

**Azpeleta**
San Frantzisko, 51
☎ 943 74 12 38

**Joseba**
Kilimon hiribidea, 1 (2. lokala)
MENDARO
☎ 659 934 964

**Urzelai**
Santa Ana, 12-14
☎ 943 74 13 76

## Pinturak

**Biok dekorazioa S.L.**
Santa Klara, 26 behea ezk.
☎ 943 74 15 52
☎ 606 43 11 19-20

**Ipintza**
Foruen enparantza, 4
☎ 943 74 04 40
☎ 607 74 04 40

**Ku Kolorea**
Urasandi kalea, 26 behea
☎ 943 74 88 43
☎ 660 52 25 87

**Desigual**
San Inazio, 5 behea
☎ 943 748 925
☎ 677 846 069
Faxa: 943 531 502
*pinturasdesigual@hotmail.es*




# aldaz

hortz klinika · clínica dental

**Klinikan %15eko deskontua inplante tratamenduetan**

* Beste deskontuei eta sedazioari ezin zaie gehitu deskontu hori. Tratamendu berrietarako eskaintzak 2009/02/01etik 2009/05/01era arte balio du.

## Aldaz Hortz Klinikak tratamendu aurreratuenetan aplikatutako punta-puntako teknologia eskaintzen dizu

- inplanteak eta hortz fijoak egun batean
- ia batere erasotzailea ez den ordenagailuz bideratutako kirurgia, punturik erabili gabe
- "invisaling" ortodontzia ikusezina
- haurrentzako ortodontzia tratamendu prebentiboak eta korrektoreak (Osakidetza-PADI)
- pazientearen irribarrea sesio batean aldatzen duten karilla estetikoak
- interesik gabeko finantziazioa 18 hilabete arte

RPS 25/06

AENOR
ER
Empresa Registrada
ER-0605/2005

Deitu gure zerbitzua ezagutzeko

**943 366 377**

Ola kalea,10
Lasarte-Oria 20160

San Bartolome, 22
Elgoibar 20870

www.dentalaldaz.com


Aterpe
TABERNA
Ondo pasa jaiak!


ZEZEN-BIDE
AUTO ESKOLA
Autorako B agiri teorikoa 18 urte bete baino lehen eskura dezakezu!
Ordenagailu bidez teoria ikasteko gela berria !
ZEZENBIDE AUTOESKOLA
ORDUTEGIA
10:00etatik-12:30era
15:00etatik-20:30era
LEKUALDAKETA
San Frantzisko, 52 behea
Tel. 943 742 720
20870 ELGOIBAR
- Euskarazko eta gaztelerazko klaseak
- Credikutxarekin ordaintzeko erraztasunak



San Bartolome jai zoriontsuak!

Elgoibarko Udalaren izenean

ELGOIBARKO UDALA